

Kaixo!

Ezer baino lehen, aurkeztu egingo gara:



Durangoko **Alpino Tabira mendi klub**eko guraso talde bat gara eta, familientzako eta 12-17 urte bitarteko gazteentzako, ekintzak antolatzen ditugu.

2017an, txangoen antolakuntzaren erreleboa hartu genuen eta, urte hauetan, hainbat ekintza egin ditugu: ibilaldi bat kobazulo barnetik (Mairulegorreta), ilunabarrean Pol Polera igo eta teleskopio handi batekin izarrak behatu, bide berdeetan zehar bizikletaz ibili eta, udaberri partean, kostaldetik ibilaldi bat egin ondoren, hondartzan bainatu izan gara.

"Mendi kluba" entzutean, mendiak igo eta jaisteaz ari garela uste dugu, baina, aurkeztera gatozena desberdina da. Gure helburuak naturaz gozatzea eta ondo pasatzea dira. Gure txangoen helburua ez da gailurretara igotzea (batzuetan bai, baina gehienetan ez). Eta horretarako txango erakargarriak antolatzen saiatzen gara. Igande honetan zuhaitz pilo bat landatu ditzakegu, eta hurrengo egun baten, Urkiolatik ibilbide bat jarraitu, iparrorratza erabiltzen eta mapak interpretatzen ikasiz.

Iaztik, gure eskaintza zabaldu egin dugu, eta orain 5-17 urte bitarteko gazteengana hurbildu nahi dugu. Horretarako, bi talde sortu ditugu.

### **1- Familientzako txangoak:**

Ekintza hauetan gurasoak beraien seme-alabekin etortzen dira. Orokorrean, 5-6 urtetik aurrera izan arren, ume txikiagoak ere etor daitezke; norberaren gaitasunen arabera eta beti ere taldea oztopatzen ez badu. Erabaki hori gurasoen esku uzten dugu.

11 urtera arteko gazteentzat pentsatutako ekintzak dira. Esperientziagatik, eta gu ere guraso garelako, badakigu adin horretatik aurrera nahiago dutela lagunekin joatea.

## 2- Gazteentzako txangoak:

12-17 urte bitarteko gazteentzat pentsatutako ekintzak dira hauek. Guraso gabe. Gurasoek baimena sinatu eta bokadiloa prestatzen lagunduko dute soilik.

Ekintza hauetan, taldeak txikiak izatea garrantzitsua iruditzen zaigu (Gehienez 16 lagun).

2022an, gure lehenengo urtea izan da eta hauek izan dira gazteen taldeak egindako ekintza batzuk:

- Elurretara irteera. Erraketekin ibilaldia, neguan mendia ezagutu eta bertan zelan maneiatu ikasi dute eta gaua aterpe batean igaro zuten.
- Eskalatzen eta rapelatzen ikasi zuten Eginoko hormetan.
- Arroilak (Barrankoak) jaitsi dituzte.
- Jende eta toki berriak ezagutu, esperientzia berriak biziz.

Ekintza guzti hauetan, BETI, mendi taldeko heldu bat eta begirale profesional bat egongo dira gutxienez.

## 2023 EGUTEGIAK

### FAMILIAK

Urtarrilak 15	Durangaldea ezagutu (ARGI zentral hidroelektrikoa, Urkuleta)
Otsailak 5	Zuhaitz landaketa (Saibin, Lurgaila elkartekoekin)
Martxoak 12	Garbiketa eguna. (Durango Neberondo)
Ekainak 4	Bizikleta irteera (Osintxutik Usakora, Oñati)
Irailak 17	Mendi buelta eta hondartzan amaitu (Ispaster-Ea)
Irailak 30-Urriak 1	Izkin asteburu pasa
Azaroak 12	Orientazioa Urkiolan
Abenduak 17	Olentzero Mugarran

## GAZTEAK

Martxoak 11-12	Elurretara irteera, erraketak+eskia (Alto Campoo)
Maiatzak 7	Eskalada+rapel (Oroko santutegia, Araba)
Maiatzak 13-14	Rafting+arriolak (Ainsa, Huesca)
Ekainak 11	Ferrata bidea (Sobron, Araba)
Irailak 24	Arroila jeitsiera Leze Kobazuloan (Egino)
Urriak 28-29	"Gaba baltza" Urkiolan

Amaitzeko, ez ahaztu izena emateko, ekintza egin aurreko **astearte eta ostegunetan, 19:00-20:00etara**, mendi klubeko ateak zabalik egongo direla.

Kontuan izan **ez dela derrigorrezkoa bazkide izatea** ekintzetan parte hartzeko nahiz eta bazkideek preferentzia izango duten.

Egutegia Klubaren web orrian ere ikus dezakezue:

<https://alpino-tabira.org/>

Espero dugu 2023 urterako proposatzen diren ekintzak gustatzea eta bertan parte hartzera animatzen zaituztegu!

**Oharra:** informazio gehiago jaso nahi baduzue, zatozte urtarrilaren 10ean, arratsaldeko 7etan, Alpinoko lokalean egingo dugun aurkezpenera.